

ARETXABALETAKO UDALAREN ETA ACABE TALDEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Aretxabaletan, 2015eko maiatzaren 19an

BERTARATURIK

Alde batetik, **Ana Bolinaga Uribarren** andrea, Aretxabaletako alkatea, Aretxabaletako Udalaren izenean eta ordezkartzan,

Eta bestetik, andrea, NAN zenbakiduna, ACABE Gipuzkoa, Euskadiko Anorexia eta Bulimiaren Aurkako Elkartaren izenean eta ordezkartzan,

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko eskumena eta gaitasuna onartzen diote elkarri eta honako hau

ADIERAZTEN DUTE

I.- Acabe Gipuzkoa, Elikadura Nahastearen alorrean (Anorexia eta Bulimia) gaixorik dauden zuzeneko gaixoei eta zeharkako kaltetuei laguntza emateko, 1994. urtean sortutako elkarte delako eta honako helburu hauek dituela:

- Elikadura nahasteen arazo eta arriskuez gizartea jabetzea.
- Gaixoei, familia kideei eta ingurukoei harrera egitea, informatzea eta aholkatzea.
- Gaixotasunaren inguruko prebentzio aholkuak gizarteari gerturatzea
- Erakunde Publikoetan elkartearen presentzia sustatzea.

II.- 2001ean Acabe Gipuzkoa taldea Goienako prebentzio teknikariekin jarri zela harremanetan euren lana jakinarazteko eta balarako jasotako eskaerak ikusita, euren zerbitzua hurbiltzeko, lokal bat eskatu zutela. Urte horretan hasi zela lanean psikologo batekin eta 2003an, Arrasateko udalak 120 m²ko lokala utzi zuela zerbitzua bailaran emateko.

III.-Hortik aurrera, Acabe Deba Goienak ematen dituen zerbitzuak honako hauek direla:

- Informazio eta orientazio telefono zenbakia: Astearte eta ostegunetan arratsaldeko 4retatik 8ra, 943 79 69 27 telefono zenbakian (gainontzeko ordu eta egunetan deiak Donostiako gunera desbideratzen dira). Horretaz gain, elkarteak erabiltzaileak telefono mugikor batera dei dezakete eguneko 24 orduetan.
- Orientazio elkarriketa pertsonalizatua: Entzuteko, ulertzeko eta orientazio egokia egiteko prestatutako profesionalek egiten duten elkarriketa pertsonalizatua da. Arrasateko gunean, asteartetan eta ostegunetan, psikologoa eta elkarteak bi ama bolondres-en eskutik, Deba Goienako teknikari, profesional, senitarte eta afektatuen populazioari harrera eman diotenak,

Elikadura Jokabide Nahastea detektatu, orientatu eta harrera emateko informazioa eta estrategiak emanez.

- On-line arreta: Zerbitzua, informazioa eta orientazioa arrasate@acabeuskadi.org helbidearen bidez egiten da. Informazioa, orientazioa eta dokumentazioa bidaltzeko erabiltzen da, erabiltzaileen profil dela eta, geroz eta gehiago erabiltzen den komunikazio bide hau.
- Laguntza psikologikoa:
 - o Bakarkakoa: Gaixotasunaren aurrean kontzientzia hartzeko eta tratamendura motibatuzko, hau onartzeko eta errehabilitazio prozesuan zehar laguntzeko.
 - o Senideentzat: Gaixoen senideen orientatzeko eta laguntzeko Elikadura Jokabide nahaste baten aurrean.
- Taldeak: Arrasaten, senideak osasutako taldea

IV.- Udalak oso garrantzitsua jotzen duela Acabek bailaran eskaintzen duen zerbitzua.

Ondorioz, esku-hartzaileek erabaki dute lankidetzaz hitzarmen hau izenpetzea ondorengo klausuletan oinarrituta.

KLAUSULAK

Lehenengoa: Hitzarmenaren xedea

Hitzarmen honen bidez Acabe taldearen eta Aretxabaletako Udalaren arteko harremana arautu nahi da.

Bigarrena: Aretxabaletako udalaren betebeharrak

- Acabe Deba Goienako zerbitzua eskaintzeko, Aretxabaletako Udalak 600 euroko diru laguntza emango du, 2015eko aurrekontuan agertzen den 0401.481.213.80.01 kontu sailaren kargura.

- Zenbateko hori hitzarmen hau sinatzerakoan ordainduko da.

Hirugarrena: Acabe taldearen betebeharrak

- Diru laguntza Acabe Deba Goiena egoitza mantentzeko izango da, bertan bailarako familiei, eta horien artean Aretxabaletakoak, arreta zuzena emateko.

- Arrasaten kokatuta dagoen egoitzan honako zerbitzu hauek eskainiko du:

- Informazioa, orientazioa eta harrera
- Laguntza psikologikoa
- Laguntza taldeak

- Horretaz aparte, Udalak eskatu diezazkioke euren zerbitzuak Aretxabaletako herrian emateko, elikadura nahasteen arazo eta arriskuez gizartea jabetzeko eta gaixotasunaren inguruko prebentzio aholkuak gerturatzeko.

- Acabe Taldeak antolatzen dituen ekintza guztiek, baita horien propagandak ere, kontuan izan beharko dute genero eta berdintasunaren ikuspuntua eta hizkuntza eta irudiaren erabileran ez da elementu baztertzailerik egongo.

- Acabe Taldeak konpromisoa hartzen du udalak euskararen normalizaziorako ezarrita dituen irizpideak betetzeko. Horretarako, honako hauek egingo ditu:

- Herritarrei zerbitzu ematerakoan, kontuan hartuko ditu herritarren hizkuntza eskubideak, hau da, ze hizkuntza aukera egin nahi duten; eta horri egoki erantzun ahal izateko, euskaraz dakiten pertsonak jarriko ditu lan hauetan: telefono zerbitzuan, orientazio elkarrizketetan,...
- Saioetan banatuko den informazio guztia euskaraz, edo euskaraz eta gazteleraz, egongo da.
- Ekitaldi publikoak, aurkezpenak, publizitatea eta bestelakoak... euskaraz, edo euskaraz eta gazteleraz, izango dira. Eta ahozko aurkezpenetan nahiz idatzizkoetan lehentasuna emango zaio euskarari, bi hizkuntzak erabiltzen direnean.

Hizkuntza normalizazioak sortutako beharrei erantzuteko, Acabe Taldeari laguntzeko konpromisoa hartzen du Aretxabaletako Udalak.

- Acabe Taldea behartuta dago eskumena duten organoek eman beharreko baimen eta lizentzia guztiak edukitzera bere ekintzak burutzeko. Halaber, eskubide pribatuko erakunde den aldetik ez du udalarekiko mendekotasunik ez erlaziorik. Hori dela eta, Udalak ez du bere gain hartzen, ez zuzenean ez subsidiarioki, elkarteak burutzen duen ekintzen ondorioz sor daitezkeen kalte pertsonal, moral edo materialen gaineko erantzukizunik; ez da ekintzak egiteagatik ezta egin ez izanagatik sortutako kalteen erantzule.

- Acabe taldeko kide bat sei hilabeteetan behin bilduko da prebentziorako teknikariarekin eskaintzen den zerbitzuaren jarraipena egiteko, eta urte bukaeran, jasotako diru laguntza justifikatzeko, Deba Goiena zerbitzuaren diru-sarrerak eta gastuen zerrenda aurkeztuko du, sortutako fakturekin batera.

Laugarrena: Diru laguntzarako baldintza orokorra

- Aretxabaletako Udaleko ordezkaria Alkate-udalburua izango da beti, eta ez du izendapenen berri emateko betebeharririk. Acabe Taldeak, berriz, idatziz jakinarazi beharko du ordezkariaren aldaketa, 15 eguneko epean, gehienez, izendapena egiten den unetik kontatuta. Aldaketa egiten den bakoitzean zehaztu egin beharko dira ordezkari berriaren datuak.

- Emandako diru laguntza bateragarria izango da helburu bererako beste erakunde publiko edo pribatuek emandako diru laguntzekin. Hala ere, inola ere ezin izango da onartu gain-finantziatorik. Horrelakorik gertatuz gero, emandako diru laguntza murriztu egingo da diruz lagundutako ekintzaren kostu totalaren mugara.

- Acabe Taldeak diru laguntza hori eskuratu zuen helbururako erabiltzen ez badu, edo diru laguntzak helburu zuen ekintza burutzen ez badu, emandako diru laguntzari dagokion zenbatekoa kenduko zaio, eta soberan jasotako diru-kopurua itzuli egin beharko du.

Bosgarrena: Iraupena

-Hitzarmen honek 2015eko urtariletik amaiera arte izango du indarraldia. Edonola ere, hitzartutakoa betetzen ez bada, sinatzaileek amaitutzat eman ahalko dute hitzarmena. Horretarako, beste aldeari adierazi beharko zaio hartutako erabakia eta horren zergatia.

-Hitzarmenari amaiera ematen bazaio hitzartutakoa Acabe taldeak betetzen ez duelako, aurreratutako diru-laguntza bere osotasunean itzuli beharko du.

Eta adostutakoa adierazteko, hitzarmen honen bi ale izenpetzen ditugu goiburuan esandako toki eta egunean

Ana Bolinaga Uribarren

Aretxabaletako udala

.....

Acabe taldea